


Aikor!

txorierriko aldizkaria



Bego Vicario, zinemagilea eta animazio irakaslea

“Geure lehiakideak ez
genituzke Estatu
Batuetan bilatu behar,
geure inguruan baino”

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarleen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana, eta Aritz ta Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea,
Fernando Olabarrieta, Oihana
Astobietta, Mariapi Agirre, Joseba
Bruton, Martin Orbe, Karmele
Artetxe, Etxahun Lekue, Eguzki eta
gauzalea, Bestorrene eta Iñaki
Astorkiza,

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka
Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkariaren adierazi-
tako esaneren edota eritxien
erantzukizunik.



Eusko Jaureritza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



24 Parke botanikoa



22 Euskara Txorierriko Merkataritza



20 Toti Mtz de Lezea



14 Joseba Gotzon



11 Igor Elorza



26 Arroeta Mendi Taldea

AURKIBIDEA

4Eritxia **6**Hemeroteka **7**Laburrak eta albisteak **11**Gurean izan da...
Igor Elorza **12**Gazteen txokoa **13**Gaztea eta... Ibon Meñika **14**Joseba
Gotzon **16**Bego Vicario **20**Toti Mtz de Lezea **22**Merkataritza
euskalduntzeko plangintza **24**Txorierriko lehendabiziko Parke
Botanikoa **26**Zamudioko Arroeta Mendi Taldea **28**Osasuna
29Teknologia **30**Txorierri ezagutu **31**Txorierritarrak munduan
32Sukaldaritza **33**Denbora pasa **34**Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro____ beste kopuru bat____

Orri hau helbide honetara bialdu: Aresti, 2 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

Etorkinak



Joseba Bruton
(Irakaslea)

Gure denboran kanpoztarrak esaten genuen Txorierrin. Baten batzuk Bilboztarrak izaten ziren, baina gehien-gehienak Euskal Herriatik kanpokoak izaten ziren, Espainia aldeko leku askotakoak: andaluzak, extremeñoak, galegoak, burgalesak, asturianoak... Horregatik, ba, kanpoztarrak hitza, hau da "kanpotik etorriak". Berba horrek ez dauka zentzu txarrik eta denok izan dugu hartu-eman kanpoztarrekin: auzokoak izan, lagun onak egin ere bai, ezkondu ere bai... Denetarikoa tratua, hemengoekin legez.

Denborak aurrera egin du, oster, eta hitz hori gero eta gutxiago entzuten dela esango nuke. Gaur egun etorkinak hitza da bolo-bolo dabiltzana, egunkarietan, irratietan, telebistetan. Gainera, albiste batzuetan, batez ere komunikabide kanpoztarren kasuan, hau da Madril aldekoen kasuan, mehatxu moduan aurkezten da, arrisku gisa, gizartea hankaz gora jar lezakeen arazo moduan. Inkestak edo gero eta sarriago zabaldu eta datu gero eta "beldurgarriagoak" aipatzen dituzte. Eta, ondoren, etorkinen "mamua" botatzen dute, artez-arte edo trabeska: "Iana kenduko duten beldurra", "kulturen arteko gatazka eragingo duten beldurra", "gizartea kezkatuta dagoela", "ten-


tsioak eragiten direla", "arrazismoa" eta abar.

Egia esan, gero eta gauza xelebreagoak entzuten dira. Esaterako, Frantzia ere ikerketa potoloak egin ei dira eta horietatik zera ondorioztatu dute: etorkinen kopurua %10 denean, gizartean gatazka larriak sortzen direla. Eta horrelakoak entzuten ditudanean barregura ematen dit, ze %10eko zifra horrek zera esan nahi du: 1.000 pertsonako herritxo batean 100 etorkin jartzea bizitzen. Edonork dakienez, Txorierriko herri batzuk 1.000 pertsonakoak izatetik 2.000 edo 3.000koak edo handiagoak izatera heldu ziren oso urte gutxian. Hori ez da %10, baizik eta %200 edo %300. Eta ez dira kasu bakanak eta ez Txorierrin bakarrik. Euskal Herri osoan gertatu dira horrelakoak eta hangoen partetik ez dut gogoratzen horrenbesteko ardurarik "gizarteko tentsioak" direla-eta. Konpondu ginen, konpondu behar-eta, azken baten inmigratzioan euskaldunok ez dugulako "fenomeno" bat ikusten, "pertsona" kontu bat baizik. Orduko urteetan etorri ziren kanpoztar gehienak bizimodua ateratzera etorri ziren, bizi berri baten bila. Eta naturaltasunez ireki ziren "zentro gailegoak", "estremeñoak"... Eta naturaltasunez moldatu ginen, gure Herria benetan eskuzabala eta errespetuzkoa delako.

Gaur egun, oster, horiek ez dira etorkintzat hartzen. Etorkin izateko itsasoaz beste aldekoak, edo Afrikakoak, edo urrunekoak izan behar. Gauza bitxia, benetan. Laster hasiko gara entzuten Derion edo Sondikan edo Astrabuduan etorkinen kopurua %10 izatera heldu dela eta "arriskua" dagoela. Baita zera ere! Gure izaera aldatzea lortu ez badute, orain etortzen direnekin ere gizabidez jokatzeko segituko dugu, eurekin bakean eta ahalik ondoen bizitzeko. Eta, seguru asko, kanpoztarrek baino errazago lortuko dugu etorkin berrie-kin ondo konpontzea, horrelakoxeak gara-eta.

***"Seguru asko,
kanpoztarrek
baino errazago
lortuko dugu
etorkin berrie-
kin ondo konpontzea,
horrelakoak
gara eta"***

Hemen torturatu egiten da



Martin Orbe
(Abadea)

Hasi barria dogun urte honetako urtarilaren 6an barreiatu ziran Tomas Linaza Euba zanaren errautsak Lemoa-atxean. Ohore zuri, Tomas!

1981. urtean egin jakun ezagun Tomas, bere semea Cabo Verdere deportatu ebelako eta Bilboko La Salve koartelean hamar egunez jasan behar izan zituen torturengaitik.

Urte haretan sartu zan Tomas aspalditik zetorren zerrenda bildurgarrian: heriotzaraino torturatuak: Joseba, Gurutze, Mikel ... ezkutatuz ezineraino markatuak: Tasio, Unai ... eta beste eta beste.

Zerrendak eten barik luzatzen dihardu; joan dan urteko azaroan burututako atxiloketen ondoren izan dogu, besteak beste, Gaizka Larrinaga eta Amaia Urizaren lekukotasun ikaragarria. Gero eta tortura basatiagoak.

Tortura ez da polizia sadiko batzuen kontua. Dirua, indarra, nagusikeria, boterea, agintea... babesteko, hurrenez hurren, izen desbardinez moztarrotzen dan sistemak errekurtsio modura erabiltzen dau sistemari alternatibak proposatuz eta gauzatuz jarduten daben guztiak, pertsona zein talde, anulatzeke. Eta hortik datorko bere alderik bildurgarriena, inpunitate osoz erabili ahal izatea; areago, sistemaren ordenari eskeintzen jakon zerbitzu goresgarrien artean katalogatzea. Normala, beraz, torturatzaile nagusiak kondekoratu eta sariztatzea.

Sistementzat baliabide eraginkorra danez, sistemak eskeintzen deusezan onurez baliatu nahi dabenak sistemaren sareetan jausiko dira. Eta erabiltzen denean polikirariak, epaileek eta forenseek ez ikusiarena egingo dabe eta eliz-jerarkaren bat edo beste gaia aitatzen ausartzen danean salaketa eta eskaera orokorretara mugatuko da.

Honenbestez, guztioi dagokigu sistemak torturaren bidez txikitu nahi izan dituen guztiei eta euren familia eta inguru hurbilari geure babesa emotea. Laguntza bereziagoak eta banan-banan emon beharrekoak gain, presoak eta euren familiei etengabeko sostengu eta laguntza emonez ia ehuneko ehunetan lagunduko deusegu torturatuak izan direnei.

Saramago eta 11-M



Karmele Artetxe
(Historialaria)

Atzetik aurrera hasiko naiz. Abenduaren 13an Zapatero Presidenteak agerraldia egin zuen Martxoaren 11ko atentatuak ikertzeko batzordean. Goizean hasi zen gauera arte luzatuz. Hasieran, hurrengo egunean gertaturakoaren laburpena prentsan irakurriko nuelakoan, denbora horretan ez ematea deliberatu nuen. Hala ere telebista piztu ...

Eta txas! Llamazares aurkitu nuen, inoiz gutxitan erakusten duen gaitasunarekin berbaz. PPK jarraitzen zuen estrategia salatu zuen, eta Zaplanari zera argitu zion, batzordearen helburua ez zela PPTik

PSOErako gobernu aldaketaren zioa argitzea, ezta hauteskundeetan PSOEk gidatutako konspirazio politiko-mediatikoa frogatzea ere. Argi dago, PPri, autoritarismo eta paternalismo printzipioetan oinarritzen den alderdiari, ulertezina egiten zaiola hiritarrak bere kabuz bildu eta manifestazioa antolatzea. Horregatik agian, beraien tzat, martxoaren 13an, hausnarren egunean, PPren egoitzaren aurrean bildutako jende-oldeak gobernua derrokatzeko ekintza konspiratiboa izan behar zuen (gogoratu Raxoiren beldurra halako desantolaketa sozialaren aurrean, ala tristura ote zen?).

Eta txas! Orduan etorri zitzaidan Jose Saramagoren azken eleberria burura: "Ensaio sobre a lucidez".

Eta txas! Orduan ere, Jon Alonsok abenduaren 5eko Argian egin zion elkarriketako pasartetxo bat: "Portugalaren hamarnaka artikulua argitaratu ziren *Ensaio sobre a lucidez* liburuari buruz, eta gehienak liburuaren eta egilearen aurkako erasoak izan ziren, nobela boto zuriari buruz mintzatzen zelako bakarrik. Egilearen asmoa demokrazia suntsitzea zela esatera

iritsi ziren... Espainiari dagokionez, aitortu behar dut ez nuela espero liburu horren inguruan isiltasunezko horma ia erabatekoa eraikiko zenik, eraiki den moduan". Nobel sariaren obrak (Madrilgo atentatuaren aurretik idatzitakoa), baditu herrialde desberdinetan jasotako egiazko gertaerakin antzekotasun ugari. Eta, akaso, arriskugarriak gerta daitezkeen eztabaida politikoak eragin ditzakeelako, isiltasun higienikoa eraiki da bere inguruan. Pandoraren kutxa hobe itxita mantendu. Ala ireki?

Koka gaitezen. Saramagoren nobelan, hiri bateko biztanleen %83aren bozak zuriak dira azken hauteskundeetan. Botoen %8arekin alderdi kontserbadorea gailentzen da (ez da hain gauza sinesgaitza, gutxiengo legalak nagusitzearena, ez da?). Nobelaren eraikitzen den alegiazko herrialdearen Konstituzioan zuriz bozkatzeari eskubide gisa jasota dagoen arren, praxian ezin da gauzatu. Zuria ezin da onartu gehiengoaren aukera gisa, alderdiak deslegitimatzen dituelako, baita alderdien esku dauden erakundeak ere. Saramagok honela dio (barka pasartea gaztelerazko bertsioan eskaini beharra): "el único crimen de esta gente fue votar en blanco, no tendría importancia si hubieran sido los habituales, pero fueron muchos, fueron demasiados, fueron casi todos, qué más da que sea tu derecho inalienable si te dicen que ese derecho es para usarlo en dosis homeopáticas, gota a gota". Nobelaren, agintariekin uste dute, hasieran bederen, krisiaren atzean konspirazio handi bat dagoela (anarkista agian) eta ikertu beharra dagoela. Noski, bozen aitzinean hiritar aske eta burujabeen kontzientziari erabakirik egon daitekeenik ez dute aukera posible gisa planteatzen ere. Estatuak, beraz, bere esku dauden baliabide guztiak erabiliko ditu gauzak bere onera itzul daitezkeen. Hiritarrak, aldiz, etengabe eta nonahi gizatasun handiz jardungo dira. Elaberrian, adibidez, metroko atentatuaren osteko hiletetan inongo alderdik antolatu eta gidatu gabeko manifestazioan abiatzen dira (PPren egoitzara?).





Gotzon BARANDIARAN, idazle larrabetzuarra

Minak salatzeko / barruak ixteko
THE BALDE, abendua-urtarrila,
19. zenbakia.

"Oinarrizkoa iruditzen zait konpromiso maila hori, fartsa bat ez izateko (...) Nik Gotzon pertsona bezala inguruarekin konpromisoak ditut ez nagoelako gauza batzuekin konforme. Idaztean jarrera hori bilatzen dut.

Toti MTZ. DE LEZEA, idazle larrabetzuarra

DEIA, 2005-01-20

"Literatura ez da nire bizitza, nire bizitza gainerako guztia da. Irakurria izateak asko betetzen nau, liluratu egiten nau, gogokoa dut, baina besterik ez. Alde batera utzi behar banu, edozein arrazoigatik, utzi egingo nuke eta kito. Lanbide bat baino ez da."

Gorka AZKORRA, Athleticen jokalaria

"Azkorra se va cedido al Recreativo dispuesto a volver 'por la puerta grande'
EL CORREO, 2005-01-21

"Ernestok konfiantza du nigan, eta konfiantza hori ez galtzearen banoa 'Recre'ra, ea jarraitutasun handiagoa dudana [...]. Pozik nago, ezen, antza denez, Recreativok neure aldeko apustua egin du. Horixe behar dut, eta ehuneko ehunetan sinesten dut neure posibilitateetan. Banoa, baina gauza bat badakit, itzultzeko eta hemen urte asko egiteko noa."



Ibon MEÑIKA, Haikako auzipetu zamudioztarra

"Epaiketak, errepresio saio berria izateaz gain, agerian uzten du Estatuaren ahulezia"
BERRIA, 2005-01-11

"Gu epaituko gaituzte gazte ezkertiar eta abertzaleak izan eta, gainera, publikoki, jardura normalizatuan, hala eman dugulako aditzera. Haikako militanteak ginelako epaituko gaituzte, Haikak herri honentzako izugarritzko mugarrak jarri zuelako."

Fernando OLABARRIETA, psikologo lezamarra

"Guraso gazteak galduta daude, eta jakin-min handia daukate"
BERRIA, 2005-01-13

"Gurean gurasoei egunero sortzen zaizkien zalantzak argitu nahi ditugu. Egin ditugun ikerketetan ikusi dugunez, gaur gurasoak nahiko galduta dabiltza, segurtasun handirik gabe, eta umeak larregizko permisibitatearekin hazten dituzte. Zalantzak askotari-koak dira: umeak ohean pixa egiten duela; lo egin edo jateko arazoak dituela; etxeko nerabea telebistara lotuegi edo play station-ak harrapatuta dagoela. Horien inguruan zer egin dezaketen guk aholku emango diegu."

Frontis enpresak Txaber Zabala pilotaria fitxatu du

Txaber Zabala atzelari lezamarak urte biko kontratua sinatu du Iruñeko Frontis enpresarekin. Urtarrilaren 2an egin zuen debuta enpresa berriarekin, Matienan. Bertan, Zabala-Ariz-nabarreta bikoteak Antxia-Errandonea bikotearen aurka jokatu zuen partidua, eta, joko bikaina egin arren, 18-22 galdu zuten. Lezamarra Arabako eta Getxoko Txapelketetan nagusitu zen



2003an; iaz, besteak beste, Bizkaiko Herriarteko Txapelketa eta Getxoko Gabonetako Txapelketa irabazi zituen.

Hizkuntza ereduak eztabaidagai Lezaman

Abenduaren 23an, eta Eskolak euskaldundu behar du kanpainaren barruan, hitzaldia izan zen Lezamako kultur aretoan, Euskal Herriak Bere Eskola elkarteak antolatuta. Hitzaldia Euskal Herrian Euskaraz taldeko kide batek eman zuen.

Bertan azaldutakoaren arabera, gaur egungo hizkuntza ereduak (A, B eta D) ez



dute bermatzen ikasleak euskalduntzea, eta, ondorioz, beste eredu berri batera jo beharko litzateke. Horrela, bada, %38 baino ez da euskaldun irten eskolatik. Arazoa gizartearen arlo guztiei dagokie; hala ere, konponbideak eskolan bilatzen hasi beharko lirateke, Euskal Herriak Bere Eskola elkartearen ustez.

Larrabetzuko Udalak Berdintasun Saria jaso du

Abenduaren 14an, Jose Luis Bilbao Bizkaiko diputatu nagusiak 2004ko Berdintasun Saria banatu zituen, eta sarituen artean Larrabetzuko Udala izan zen. Sari hauekin, erakundeek edo elkarteek gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egiten duten lana goraipatu nahi da.

Larrabetzuko Udalaren helburu nagusietako bat genero-perspektiba bultzatzea da, eta aurtengoa da lehenengo aldia, Foru Aldundiari proiektu bat aurkeztu diona. Proiektu honen bidez, alargunen taldearekin jardunaldiak bultzatzeko asmoa du, gizonen pentsamoldea aldatu eta alargunak elkarreetan biltzera animatzeko.

Valdenocedako espetxean hil zen zamudioztar bat identifikatu dute

Burgosko Valdenocedako espetxean preso egondako errepublikarren senideen kolektiboak ezagutzera eman ditu espetxe hartan 1943ra arte hil ziren 150 presoren izenak. Haien artean, Zamudioko Jose Aurrekoetxea Etxeandia identifikatu dute.

Biktimen zerrenda www.prisiondevaldenoceda.galeon.com helbidean kontsulta daiteke; hala ere, bertan akatsak izan daitezkeela ohartarazi dute, "zerrenda heriotza-ziurtagirietako hitzez hitzeko aipamenetan oinarrituta baitago". Kolektiboa biktimen senideen bila dabil, gorpuk lurretik ateratzea erreklamatzeko.

Loiuko liburutegiko ikasgelaren ordutegi berria

Otsailaren 1etik aurrera Loiuko liburutegiko ikasgela goizez ere egongo da zabalik, 10:00etatik 13:00etara, hain zuzen ere. Arrastiz betiko egutegia izango du: 16:30etik 20:00etara.

Euskararen Eguna Txorierri Politeknikan

Orain dela gutxi Euskararen Eguna ospatu zuten lezamarrek; otsailaren 4an, berriz, Txorierri politeknika ikastegiak hartuko du txanda. Egun horretan, goizeko 9etatik arrastiko 1 eta laurdenetara arte, hainbat ekitaldi izango dira, bertako euskara batzordeak antolatuta: txokolatada, futbito finala, mus txapelketa, herri kirolak, irrintzi txapelketa... Ostean, bertso bazkaria izango dute Fikako sagardotegian; bertan Fredi Paia, Ekaitz Larrazabal, Peio Etxebarria eta Etxahun Lekue arituko dira bertsotan.



Ibon Meñikaren aldeko mobilizazioak

Haika gazte erakundeko kidea izateagatik ETari laguntza eman diola leporatu diote Ibon Meñika Zamudioko gazteari. Espainiako Auzitegi Nazionalako Fiskaltzak hamar urteko espetxe zigorra eskatu du zamudioztarrantzat, eta laster epaituko dute beste 41 gazterekin batera. Guztira, 654 urteko espetxeratzea eskatu da. Ibonekiko elkartasuna adierazteko, mobilizazioak egingo dira hemendik aurrera Zamudioko plazan. Mobilizazioak bariku guztietan egingo dira, iluntzeko 8etan.

Irakurketa sarean

Zamudioko udal liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalen (ELSN) barruan dago, eta on-line dauka bere katalogoa. Honela, herritarren sarbidea errazten da Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi publikoetako fondo bibliografiakoetara. www.euskadi.net/katalogobateratua webgunea kontsultatuta, erabiltzaileak jakingo du gai bati buruz zenbat dokumentu dauden bilaketa bakarrean, baita zein liburutegitan eskura ditzakeen ere. Horrezaz gainera, irakurlearen txartel bakarren bitartez sartu ahalko da on-line katalogo honen partaide den edozein liburutegi publikotara. Hori dela eta, Zamudioko udal liburutegiko bazkideek liburutegira joan beharko dute euren datuak egiaztatzeko. Era berean, ELSNri buruzko informazio gehiago emango zaie bertan.

Testua: Amagoia Guezuraga

Diru laguntzak, azoka solidarioa eta gabon-txartelen kanpaina

Olentzerok Behar Bidasoa gobernuz kanpoko erakundeari ere ekarri dizkio opariak. Abenduaren 24ren bueltan Txorierriko hiru udalek erantzun diete 2004an diru laguntza jasotzeko eginiko eskariei: Zamudioko Udalak 1.200 euroko laguntza eman dio eta Lezamakoak 6.000 eurokoa, Kolonbiako formatzaileen nominak ordaintzeko. Beste alde batetik, Sondikako Udalak 450 euroko laguntza eman dio, Pereira hirian lokal bat erosteko proiektuaren tailerretan eginikoa saltzeko. Ortuellako Udalak ere 24.000 euroko laguntza eman dio horretarako.

Abenduan, azoka solidarioa antolatu zuten Lezaman, eta jostailuak, panpinak, Gabonetako postalak eta abar saldu ziren bertan. Guztira, 211,80 euro batu ziren azokan. Eta iaz gabon-txartelen kanpaina



ere egin dute enpresa eta partikularren artean. Guztira, ia 2.000 euro jaso dute hortik.

Bildutako diruari esker aurten ere aurrera egin ahalko du Pereirako proiektuak, eta hainbat eta hainbat gazte eta emakumek formazioa hartu eta lanerako aukera izango dute. Horien guztien izenean, Behar Bidasoa GKEk eskerrak eman nahi dizkie udalei, enpresei eta komertzioei, baita herritar guztiei ere.

Testua: Iñaki Bilbao

Aste Santuko kanpaldiak Zamudion

Zamudioko Udalak Aste Santuko kanpaldiak antolatu ditu ume eta gazteentzat. Kanpaldiak martxoaren 29tik 31era bitartean egingo dira. Txikienek Lanestosako Oregi aterpetxean egingo dituzte; nagusiagoek Espejon. Kanpaldietan hainbat abentura jarduerak egiteko aukera izango dute: arku tiroa, kayak, tirolina, rappel... Otsailaren 7tik 11ra arte eman behar da izena, Zamudioko Udaletxera joanda edo 94 406 09 98 telefono zenbakira deituta.

Biogune zentroa inauguratu da Zamudion

Urtarrilaren 21ean, Biogune biozientziei buruzko ikerkuntza zentroa zabaldu zuten Zamudioko Parke Teknologikoan. Bertan ikerketak egingo dira gaixotasunak errazago osatu ahal izateko. Horretarako, genetikan aritu eta zelula-amekin lan egingo dute Biogune zentroan.

Armendariz eta Badiola III nagusitu ziren Derion

Urtarrilaren 22an, Bizkaiko Lau eta Erdiko I. Openaren aurre-finalak izan ziren Derion, Frontis enpresak antolatuta. Bertan Armendarizek 22-9 irabazi zion Arretxeri, eta Badiola III pilotariak 22-16 Ariznabarretari.

Sondikako Kultur etxea inauguratu da

Abenduaren 18an, Sondikako kultur etxea inauguratu zen Cestero kalean. Bertan izandako lagunen artean, Foru Aldundiko Kultura diputatua, Kultura Saileko zuzendaria eta Txorierriko alkateak izan ziren.

Eraikinak 500 metro koadro ditu, eta auditorio bat, ludoteka bi, erabilera askotarako areto bat, kamerino bat eta beste eranskin batzuk daude bertan. Horrezaz gainera, telebista, DVD eta Internetarako konexioa dituzte ludoteka biek eta erabilera askotarako aretoak. Auditorioak eta eszenatokiak ere ekiporik berrienak dituzte: proiektioetarako pantaila handia, haririk gabeko mikrofonoak, CD, DVD eta bideo erreproduzigailuak, Internetarako sarbidea... Leku aproposa da, beraz, antzezpenak, musika saioak, hitzaldiak eta antzeko ekitaldiak egiteko.

Sondikako kultur etxeak programazio finkoa izango du; hala ere, Udalak edo herriko kultur elkarteek proposatzen dituzten beste ekintza batzuk ere egingo dira bertan. "Horrela erantzuna ematen diegu Udalbatzak hartutako konpromisoari eta sondikoztarrek gudan ipinitako konfiantzari. Konfiantza horrek erantzukizun handia dakar, eta hura kontuan hartuko dugu beti, herriaren alde lan egiteko orduan", esan zuen Gorka Carro Sondikako alkateak.

Diseinu berriztatzailea

Etxe berria Sebastian Uriarte arkitektoak diseinatu du, eta eraikitze lanei 2003ko abuztuan ekin zien Construcciones



Eraikinak 500 metro cuadro ditu. Bertan, auditorio bat eta erabilera askotarako areto bat daude, besteak beste

Ondarra enpresak. Lanotan 1.200.000 euro inbertitu dira: Udalak diru kopuru horren %90 jarri du; Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, gainerako guztia.

mugikorak ipini direla. Beste alde batetik, kultur etxeak aire egokitua eta bero zein soinu-isolamendua ditu.

Eraikinak hainbat berezitasun ditu, eta haien artean aipatzekoak dira diseinu berriztatzailea eta instalazioen balioaniztasuna. Bitxikeria lez aipa daiteke ludoteke-tan eta erabilera askotarako aretoan panel

Inaugurazio egunean, ekitaldi ederra antolatu zen: aurrekua dantzatu, etxea bedeinkatu eta zinta ebaki ostean, emanaldi zoragarria eskaini zuten Pentagrama akordeoi taldeak, Txuma Olagüe abesbatzak eta Gorantzaileak dantza taldeak.



Gorka Carro, Sondikako Alkatea, Foru Aldundiko Kultura diputatua eta Kultura saileko zuzendaria



Ekitaldi zoragarria eskaini zen inaugurazioaren egunean

Igor Elorza, bertsolaria

“Lehenengo txapelketa irabaztearen ilusioa, ez deutsu emoten inongo txapelketak gero”

Bizkaiko Bertsolari Txapelketan laugarren aldiz txapela jantzi dau Igor Elortza durangarrak. Hori Bai Larrabetzuko gaztetxean Natibitate egunean estreinatu eban txapel barria Jon Lopategi, Xabier Amuriza eta Unai Iturriagagaz batera egingako saio gogoangarrian.

Testua eta argazkia: Etxahun Lekue

Sarri egon zara Hori Baien Natibitateko saioan. Zelango plaza dala esango zenduke?

Ona, eta batez be, berezia. Hasieran arraroa egiten zan halako saio bat Natibitate egunean egitea, baina familiagaz afaldu eta bazkaldu ostean giro berezia sortzen da. Larrabetzun ondo hartzen gaitue beti, eta lekua be egokia da. Saio politak urtetan dabe normalean.

Saio berezia egin zenduen egun horretan, bertsoak botatzeaz gainera gai-jartzaile lanetan ibili zinien eta...

Libre ibili gura genduan, baina lauren artean eginez gero, bertsolari bi jokotik kanpo gera daitekez, eta gai batzuk alkarri ipintzea pentsatu genduan. Entzuleei berezia suertatzen jakela uste dot: berba hartu eta bata besteari zer gai jarriko deutsun... Lantzean behin eginez gero, polit eta bereziak ateratzen dira halakoak.

Azkeneko txapelketa aspaldikoetarik arakastatsuen izan da; entzuleen aldetik, behintzat. Zergatik izan da hori, zure ustez?

Lehenengo eta behin, mailak gora egin dauelako. Bizkaiko Finalean 90. urtean sartu nintzan lehenengoz Arriagan, eta artean zortzi-atariko gehienak onak izan arren, finalak beti izaten ziran gorabeheratsuak. Beste alde batetik, hainbat jenderen beharrak be errua izango eben, izan be, kanporatzeetatik hasita 300 bat lagun ibili dira lanean.

Azken urte honeetan Bizkaiko entzuleek talde antzeko bat osatu dabe, eta halakorik ez da gertatzen beste leku batzuetan; Gipuzkoan, kasu. Hareek be txapelketaren parte aktiboa sentitzen dirala esango neuke.

Laugarren txapela jantzita, zure lanaren baloriorik egin duzu?

Ez. Aurten nahiko trankil joan naz txapelketara, aurreko hilabeteetan beste kontu batzuk izan bainituan buruan... Eta apur bat erabakiz be bai, zeren eta urtero zeure burua motibatzea

gatxa dan. Bertsotan aritzeko gogoagaz ibili naz, baina trankil; ez irabazteko beharraz. Lehenengo txapelketa irabazi nabenean egundoko ilusioa hartu neban, eta halako ilu-



“Bertsolaritzan egun dagoen maila inoz baino hobea dala pentsatzen dot”

Maila haundia dauen jendea badago, halanda be, plaza gitxikoak dira. Beste alde batetik, telebistako saioen alde ala kontrako iritzia eduki daiteke, ekitaldi handien antolamenduren gainean eztabaida daiteke... baina plazara irteteko jenderik ez egotea, bertso-

siorik ez deutsu egiten inongo txapelketak gero. Handik aurrera be gogotsu ibili naz... Ondo egin dot bertsotan aurten, eta irabazi dot... Baina nire lanari buruzko hausnarketarik ez dot egin, egia esan.

Txapelketen ostean zelako sentsazioa izaten dozu: presioa kendu eta plazan berriro hasiteko gogoala bertso-kontuak alboratzeko beharra tarte batean...

“Lurrartzea” kostatzen jat apur bat, izan be, txapelketetako bertsoak eta plazakoak ezberdinak dira; norbera bere buruan sar daiteke errazago txapelketetan. Eta plazako gaiek, giroak eta bertsozaleek beste gauza bat eskatzen dabe. Gabon inguruko hiru-lau saioetan kostatu jat plazako logika horretara jotzea, eta oso gauza bitxia gertatu jat aurten: txapelketaren aurreko asteetan nahiko “trankil” ibili, eta primeran egiten neban lo, baina txapelketaren ostean eguneroko erritmoa berreskuratu ezin...

Nola ikusten duzu bertsolaritzaren egoera orokorrean?

saiorik ez izatea eta abar izango litzateke benetako arazoak. Dana dala, historian zehar egondako bertsolaririk onenez aparte, gaur egungo egoera inoz baino hobea dala pentsatzen dot, gaur egun dagoen maila inoz baino hobea dalako.

Plazaz plaza ibiltzeaz gainera, liburu pare bat eta disko bi kaleratu dituzu...

Liburu bat egiten gabilz, eta gerraren aurreko bertsolari anonimoen bertsoak batu doguz bertan. Eta bigarren zatian gerratik gaur egun arteko bertsolarien famatuen bertsoak batzen gabilz Unai Iturriaga eta biok.

Diskoei dagokienaz, itzel gustatzen jat nire bertsoei musika jartzea, baina taldeko lana exijitzen dau horrek, eta nekatu egiten naz azkenean. Liburu bat idaztea beste kontu bat da, norberak lan guztia egin behar dauelako... Dagoen arazo bakarra haxe da: momentuan etortzen jatzuzan ideiak hilabete barru ahaztuta izatea edota hain onak ez dirala pentsatzea. Eta horreetako batzuk ordenadorean sartuta dodaz, inoz urtengo dabelako itxaropenagaz.



Amodiozko ekosistema zainduz

Gai honekin "txingalekuetara" jo nahi dut. Jakina da gizarte honetan gure ekin-tza guztiek edo, behinik behin, gehienek euren ondorio ekologikoa izaten dutela, normalean hondakin moduan. Sexuaren kasua ez da salbuespena izaten.



Niretzat "txingalekuak" dira gure inguruko bazter horiek, gazteok etxe propiorik ez edukitzearren, bikoteok geure desioa kulminatzera joaten garen lekuak; gehienetan leku hauek herrietatik kanpo edo inguruetan kokatzen dira; beraz, ibilgailuak erabili beharra dago bai heltzeko, bai sexu harremanak edukitzeko.

Gure garaian kondoia da antisorgailu neurri erabiliarena. Beno, eta denok badakigu nola erabiltzen den —"ipini, tiki-tiki, korapilotxoa eta bota"—, baina non bota? Hor dago koska! Bada, gure txingalekuak ikusirik, sekuentzia hau horrela bukatzen ohi da; "Ireki bentanile, eta bota" noski. Kristala lurrunduta dagoenez, kondoia, klinex eta guztia

desagertzen ei dira! Bada ez, ez gureak, ezta besteenak ere, zeren leku hauek amankomunak izaten dira eta gehienak hantxe bertan gelditzen dira eta goma-txuak eta papera ezin dira birziklatu.

Nire ustez, arazoa konpontzea ez da hain zaila, beste kasuetan bezalaxe mendian, kalean... Esaldi sinple batekin labor daiteke: utzi lekua aurkitu duzuen bezala.

Laburbilduz honako hau proposatu nahi nuke; "ipini, tiki-tiki gozatu, kendu, korapilotxoa eman, gorde (poltsa edo paperezko zapi batean) eta bota", baina zakarrontzian, mesedez! Holan ez dute hain itxura kaxkarra izango leku horiek.

Testua: Eguzki eta gauzale bat

Ibon Meñika ✱ gazte mugimenduko kidea

“Zugaz eta zure inguru guztiagaz jolastu leikie inpunitate osoz”

Ibon Meñika gazte zamudioztarra laster auzipetuko dabe ETArek laguntzaile izatearen akusaziopean. Lehen be, hamar hilabete pasa zituan kartzelan, baina oraingo honetan fiskalaren eskaera hamar urtekoa da. Une batetik bestera hasiko da epaiketa. Hau guztia Garzon epaileak eginiko interpretazioaren ondorio da; berak dino ezker abertzaleko gazte erakundeak (Jarrai, Haika, Segi) lotura zuzena daukela ETAgaz. Haren tesiaren arabera, ETA, KAS, EKIN egitura konplexuaren barruan dagoz Jarrai, Haika eta Segi; besteen agindupean kale borrokaren dinamizatzaile izatea leporatzen deusez esanez hasi jaku Ibon.

Eta horren aurrean zuk zer dinozu?

Beharbada holango teoriak entzunda, gizartea bera be ohitu egin da eta zeozelan jende askok kontau deusien moduan onartzen dau. Baina guk ezker abertzaleko gazte erakunde bat besterik ez garela dinogu. Horren frogarik argiena da geure helburuak lortzeko bidea jarduera publikoa eta normalizatuia izan dala. Ni neu Haikako militantea nintzen eta Haikako militante moduan jarduera publikoa neukan. Hori hor eta edozein lekutan defendituko dot.

10 hilabete emon zenduzan kartzelan honen kontura: Zelan bizi izan zendun denbora hori?

Gogorra da. Esperientzia horretan, hainbeste bider salatu izan dozuzan egoerak (sakabanaketa, isolamendua, eskubide urraketa...) zeure azalean bizi izaten dozuz. Ikusten dozu agintea daukienak inpunitate osoz jolastu leikiela zugaz, zure familiagaz eta zure inguru guztiagaz. Eskura daukiezan modu guztietan presoia desegiteko erregimena bilatzen dabe; zure helburua duintasunez bizirautea da.

Orain kalean egonda, zer sentitzen dozu edozein momentutan barriro kartzelaratu izan zeintezala jakinda, ezpata hori buru ganean eukita?

Gurearen moduko sumario baten sartzen zaituenean, eta bizi izan doguna kontuan hartuta, kaleratu nintzen egun beretik onartuta daukat egoera hori zoritxarrez. Baina egia da, aurreko atxilotetan gertatuzan moduan, egun horretan bertan zure bizimodua guztiz aldatzen dala. Inoiz ez zara ohituten holango egoera baten bizi

izaten. Niri, barrez, zera jatort burura: lehen 10 hilabetean bizi izan nenduna orain beharbada 10 urtean barriro biziteko arriskuan nagoela.

Kartzelatik urten dozunetik egunero komisaldegia baten aurkeztu behar izan dozu zeure burua. Zelan baldintzatzen dau egoera honek zure moduko gazte baten bizimodua?

Gutziz. Egunero, edozein egoera dala, betebeharrak hori daukazulako; bestela, barriro kartzelaratuia izateko arriskuan zagoz. Gainera, zeu kontrolatzeko jarritako neurria da eta hori ez da bape erosoia. Azkenean, horren inguruan antolatu behar dozu zeure bizitza, hau da, lehenengo betebeharrak hori kendu behar dozu eta gero egunean ahalik eta normalen egin bizimodua. Hiru urteotan, gaixorik nagoela, jaieguna dala, edo-

“10 hilabetean bizi izandakoa orain 10 urtean bizitzeko arriskuan nago”

zer dala, egunero joan behar izan dot Ertzantzaren komisaldegia batera; eta astean behin, epaitegira. Hau da, 8 aldiz astean, 1.300 alditan hiru urte pasatxo honeetan.

Edozein momentutan kartzelaratuia izan zeintez. Hori kontuan hartuta, ze



mezu bialduko zeunkie herritarrei?

Holango injustizia baten aurrean bada-goela zereginik. Neuri tokau jat oraingoan, baina edozein izan leiteke. Batean, gazte erakunde baten aurka jotzen dabe, bestean egunkari bat ixten da, hurrengoan edozein lekutan antolatuta dagoen edozein auzipetzen da. Horren aurrean, guztiz inportantea da herritarrak salatzea. Eta pentsakeran nigaz ados egon edo ez, eskubide zibil eta politiko batzuk dagoz jokoan, ez neureak, ez Jarrai, Haika edo Segirenak, ezpada Euskal Herri osoarenak. Basakeri honek, ez dauka ez hankarik ez bururik, eta guztion erantzukizuna da honi aurre egitea.



Kantautorea izateak ezaguna egin badu ere, kulturgintzako hainbat esparrutan murgilduta dabil Joseba Gotzon. Horrela, bada, Portugaleteko Nazioarteko Zortzikote Jaialdiaren ardura dauka, eta “Euskadiko Futbol Selekzioaren historia” liburua idazteaz gainera Mario Angel Marrodan Olerki elkartearen buru da, besteak beste. Jarrilleroa duela urte bat etorri da Loiura biziten.

Eta musikarako grina hori, nondik dator-kizu?

Portugaleteko Musika Bandan hasi nintzen solfeoa ikasten, baina denbora gutxi eman nuen bertan. Frankismoaren ostean kantautoreen mugimendua bizkortu zen eta kontzertuak ematen hasi nintzen 17 urterekin. Lehenengo diskoa 1984. urtean atera nuen Akelarre taldeko musikariekin.

“Fotopoemak”, zure azken lana, Mario Angel Marrodan poetari omenaldia da...

Marrodanen olerkietan oinarritutako diskoa egitea proposatu zidaten lagunek. Omenaldi horrezaz gainera, elkarte sortzea egokia izango zela erantzun nien nik: alde batetik, hainbat kultur ekitaldi egiteko eta, beste alde batetik, Marrodan Olerki Saria berreskuratzeko. Elkarte sortu zenetik ekintza batzuk burutu ditugu: olerki errezitaldiak, hitzaldiak, erakusketa ibiltaria...

Diskoa euskaraz kaleratu arren, gaztelaniazko bertsioa ere grabatu da, eta katalanez zein galegoz egiteko aukera aztertu duzu. Euskal abeslarien egoera

“Etorkizunari adi egoteko beharra daukagu artistok. Bestela, gure lana eroso bihurtzen da, eta hil egiten gara”

kritikoa gainditzeko, disko bera hainbat hizkuntzatan ateratzea konponbidea izan litekeela aipatu omen duzu...

Bizpahiru hizkuntza ezagutzen baditugu, zergatik ez abestu horietan? Estatuko zein kanpoko abeslari askok egin dute, baina zama handia daramagu gure gainean hemen ... Idazleek hizkuntza ezberdinetan atera ditzakete lanak eta ez da ezer gertatzen. Abeslariengandik, berriz, beste jarra bat espero da... Eta gurea ere komertzio bat da, azken batean. Kultura egitea edota kontzientzia sortzea izan ditzakegu helburutzat, baina diskorik saldu ezean, akabo!

Beste alde batetik, euskarak mugatzen gaitu, tamalez, eta askoz errazago suerta-

tzen zaigu Argentinan gure hizkuntzaz abestea Estatuan baino. “Vascos si, ETA no” leloa entzuten da hortik eta hori gezurra da: “Vascos si”, baina euren burua espainoltzat badute.

Arazorik izan duzu inoiz euskaraz abes-teagatik?

Ez, baina anekdotaren bat kontatu dezaket. “Made in Ris” diskoko abestiak Nojan idatzi nituen, eta bertako Udalak gaztelaniazko bertsioa ere ateratzea proposatu zidan. Horrela egin genuen eta kontzertu egunean alkateak —PPkoa— abesti batzuk euskaraz kantatzeko esan zidan. Ba, euskaraz abesten hasi bezain pronto, alde egin zuen jendeak. Esamesak ere entzun ziren...

Abeslarien lana kontzientzia sortzea dela aipatu duzu lehen...

Artistok konprometitu behar dugu gizartearekin, nire ustez. Iraultzaileak izan behar gara eta etorkizunari adi egoteko beharra daukagu beti. Horrela egin ezean, gure lana eroso bihurtzen da eta hil egiten gara.



Diskografia

Gau hotza (1984)
Inpotentzia (1985)
Botere zalantzakoak (1987)
Kalapo (1991)
Made in Ris (1995)
Noegga, historias y leyendas (1999)
Nortasuna (1999)
Fotopoemak (2003)

Bilboko I. Kantautoreen Jaialdia antolatu zenuten abenduan. Instituzioen aldetik ez duzuela laguntza handirik izan entzun dugu...

Jaialdi hori Euskal Herria-Katalunya I. Kultur astearekin batera sortu zen. Aspalditik ospatzen da Lleidan Katalunya-Euskal Herria Kultur Astea eta bertan parte hartzera gonbidatu gintuzten batzuk apirilean. Euren kexa hauxe zen: "ekitaldi hau antolatzen gabilta gu eta Euskal Herrian,

ordez, ez da ezer egiten". Barnats kantautoreen jaialdian ere egona nintzen otsailean eta hango kexa berdina zen. Hori jakinda, bi ekitaldi horiek antolatzea erabaki genuen iaz Marrodan elkartekideok. Eusko Jaurlaritzara jo genuen ekitaldien nondik norakoak azalduz, baina ez genuen aldeko erantzunik jaso. Politikoki Katalunia izan dugu erreferentetzat betidanik... Eta kulturalki?

Sektorea krisian omen dago aspalditik...

Ez dakit, daukaguna da. Artista batzuei beste batzuei baino gehiago kostatzen zaie lekua izatea merkatuan. Nik, adibidez, nire esparrua lortu dut, diskoak saltzen ditut eta beste arlo batzuk jorratzeko aukera daukat, gainera.

Gure egoera beste profesionalenarekin parekatzea behar dugu artistok, izan ere babes gutxi daukagu. Diru publikoa inbertitzen da museo hau eraikitzeko edota egitasmo hori jorratzeko... Eta musikarako? Diskoren bat atera edota bira egiteko diru-

laguntza eskatuz gero, epaimahai batek erabakitzen du diru hori merezi duzun ala ez. Zergatik? Musika diru gehien biltzen duen arloenetariko bat izanik, zertan inbertitzen da diru hori gero?

Beste alde batetik, komunikabideen partetik ere ardura eza ere ikusten dut. Orain dela 20 urte diskoa atera eta elkarrizketa pilo bat ematen zenuen irratian; orain 10 bat egiten badituzu, pozik. Eta

"Politikoki Katalunia izan dugu erreferentetzat betidanik... Eta kulturalki?"

telebistan ere ez dago gure musika aurkezteko lekurik. ETBko udazkeneko programazioan aisia-saioak ziren nagusi. Eta kultura non dago? ETB 1 euskal kultura bultzatzeko sortu zen, baina azkenean bi kate publiko ditugu, biak programazio berdinarekin eta biak dira Espainiako telebistaren kopiak. Non dago gure sormena? Duela urte bi Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak euskal kultura hobetzeko ikerketa bat egin eta hainbat proposamen egin zuen musikarako. Eta errazagoa da, nire ustez, komunikabideetan dago giltza.

Fotopoemak birak Burgosera, Georgiara eta Argentinara, besteak beste, eraman zaitu iaz. Nondik eramango zaitu aurten?

Katalunia, Paris, Italia eta Estatu Batuetara joateko asmoa daukagu aurten. Bitartean bi disko prestatzen nabil: bata nire kantu berriek osatuko dute, eta bigarrena beste hiru kantautorerekin batera egingo dut. Eta zortzikote batekin ere zerbait grabatzea pentsatuta daukat.

“Animazio produkzio ikaragarria daukagu Euskal Herrian, baina instituzioak ez dira konturatu oraindik”



Testua eta argazkiak:
Itxaso Marina

Nola hasi zinen animazio zinearen munduan?

Gezurra dirudi orain, baina duela 20 urte ez zegoen gaur egun dauzkagun teknologia eta baliabideak. Festibalak eta bertan egindako erakusketak ziren animazio munduarekin genuen kontaktu bakarra, eta egarri handiz edaten genuen iturri horietatik. Mundu horrek erabat liluratuta ninduan. Madrilgo zine eskolara edo beste lekuren batera joateko dirurik ez, eta karre-
ra bukatu ondoren publizitatean aritzea eta bideo komertzialak egitea ziren nire irtenbideak. Pare bat enpresetan probatu nuen, baina ez zitzaidan bat ere gustatu, mundu hori oso matxista zelako garai hartan. Nahiago nuen beste lanen batean aritu, neuk aukeratutako edozein lanetan, eta ez

*“Mugitzen ez diren
gauzak mugiarazi eta
mugikor ikustea oso
gauza bitxia da.
Grabatzeak ez dauka
alderik horrekin”*

beste batek behartuta. Lana eta artegintza uztartzen eman nituen hiruzpalau urte, baita hizkuntzak ikasten ere, nire bizio txikia dira eta. Errusierako irakaslearen bitartez Sergei eta Olga ezagutu nituen eta haiekin joan nintzen Errusiara hizkuntza praktikatzera. Baina, kasualitatez, gizona animazio lanetan zebilen PILOT enpresan,

Larrabetzuko Bego Vicario zinemagileak EHU-ko Arte Ederretako Fakultatean ikus-entzunezko baliabideetan espezializatu, eta animazioa ikasi zuen Moskuko PILOT estudioan eta Gasteizko Diseinu ikastetxean. Hainbat filme labur eta bideo egiteaz gainera, liburu batzuk idatzi ditu; *Mamá quiero ser artista*. *Mujeres españolas en la animación* haien artean. Gaur egun animazio irakaslea da unibertsitatean. Animazio zineari buruz hitz egin dugu berarekin.

eta Olga umeentzako animazio zine zuzendaria zen. Bertan beste enpresetan lan egiteko jendea trebatzen zutela komentatu zidaten eta izena eman nuen ikastaro batean. Hori amaituta, itzuli eta Unibertsitatean hasi nintzen eskola ematen. Orduan erabaki nuen bertako industria ezagutu eta animazioa jorratzea...

Bai, baina zergatik animazioa eta ez zine erreala?

Hainbat alor ezberdin lan ditzakezu zuk zeuk animazioan: istorioa, gidoia, irudia, soinua... Lan plastikoa da, sormenezko lana. Erabil dezakezun teknologia ere oso hurbila da, eta ez duzu zertan inoren beharrean egon. Oso teknika demokratikoa da, ia edozeinek egin dezakeena. Eta magia



Seme-alabek eta ikasleek satisfazioa ematen diote Begori gaur egun

berezia dauka, mugitzen ez diren gauzak mugiarazi eta mugikor ikustea oso gauza bitxia baita. Grabatzeak ez dauka alderik horrekin... Zine arruntak ez nau erakartzen; ez nuke filmerik egingo inoiz... Istorio bat kontatzeak ez nau erakartzen, eta ez daukat kontatzeko istoriorik ere ez. Are gehiago, kontatu beharreko istorio guztiak kontatuta daudela uste dut. Mugimendu eta koloreen bitartez, sentsazioak transmititzea askoz xarmangarriagoa da, nire ustez. Adibidea jartzearen, poeta askok ez dute inoiz nobelarik idatzi, eta ez die ardura... Ez dakit zine erreala egiteko gauza izango naizen, baina ez daukat erronkatzat; poesia egiten jarraitzea nahiago dut.

Animazio esperimentalaren lantzen duzu, gainera...

Animazio industrialaren eta industrialaren ez denaren arteko muga garbi dago, baina esperimental hitza erabiltzen dugunean terreno irristakorrean sartzen gara.

“Nik ez dut istoriorik kontatu nahi izan, ideiak transmititu baizik”

Autoreen lanari dagokionez, ia guztia esperimental delako esango nuke, egon ere aukera handia dago bertan: zine abstraktutik hasita ia itxura industrialak daukan diseinuraino. Egileak berak ekoizten du lana, eta hori esperimentatzea da. Horrezaz gainera, irudiarekin, materialekin, soinuarekin eta abarreko elementue-

kin esperimentatu daitezke... Oso korapilatsua da azaltzea, baina argi dagoena da esperimentatzeko asmoz zerbait egiten denean hori esperimentatzea dela (barreak).

Eta hainbat materialekin egin duzu esperimentazioa: fotokopiekin, harea-ekin, eskaneatutako irudiekin...

Baina ez naiz berritzailea izan horretan, fotokopiak, hondarrak eta ebakinak betidanik erabili baitira. “Haragia” film laburrean, ordez, bai izan nintzela berritzailea, jendea eskaneatuta agertzen den beste filmerik ez baitut inoiz ikusi. Ideia ona izan nuen (barreak)... Teknika ekologikoa da paperik ez delako xahutzen, eta izugarri ederra, detaile guzti-guztiak agertzen direlako.

Teknikarekin baino sintaxiarekin esperimentatu dut gehiago, hau da, planoak lotzeko erarekin. Nik ez dut istoriorik kontatu nahi izan, ideiak transmititu baizik. Teknika, animazioaren erritmoa eta sintaxia erabili ditut horretarako, eta sentsazioak transmititzea lortu dut horrela.

Ez duzu istoriorik kontatu nahi, baina gizartetik oso hurbila da zure zinea.

Gai sozialetara jotzen dut, baina ez dut nahita egiten. Oso barneratuta dudan asuntia da, eta berez ateratzen zait. Loreen usainaz edota argitasunaren ederraz gozatzeko mendira joaten naiz; poesia lirikoa ez zait interesatzen.

Nireak ez dira istorio zehatzak, baizik eta gai sozial batzuekin lotuta dauden sentimenduak. Lagun batzuek oso urte txarra pasatu zuten aspaldian, eta nik oso gertu bizi izan nuen euren esperientzia. Egoera horrek *Geroztik ere* nire lehendabiziko filmea egiteko ideia eman zidan,

eta lagunek izandako sentimendu eta sentazioak hartu nituen abiapuntutzat. Filmeak minutu bi irauten ditu, eta zuri-bel-tzezko fotokopiak erabiltzea erabaki nuen estetika gogorra izateaz gainera zerikusia dutelako egunkarietan ikusten ditugun iru-diekin...

Zaila ematen du hain denbora gutxitan sentimendu horiek guztiak transmititzea...

Teknikak berak pista asko ematen ditu eta ondo aukeratzea oso inportantea da; baita elementuak ere, noski. Publikoa ez da kokoloa eta mezua berehala harrapatzen du. Fotokopiak, egunkarietako irudiak eta estetika bortitz hori lotzen ditugu inkontzienteki. Soinuak ere beste denbora dimentsio bat ematen dio kontatzen denari, eta denboran aurrera eta atzera eraman ahal zaitu konturatu gabe. Sintesi-lan izugarria da, esaten dena eta irudiak nola

mugitu oso zehatz aukeratu behar baitira. Filme txikiak nitroglizerinazko pilulak bezalakoak dira: ikusi eta hazi txiki bat gelditzen zaizu barruan. Batzuek berehala ahaztuko dute, baina beste batzuk hausnarketa egitera bultzatuko ditu.

“Ez dut zinea egiten komunikatzeko beharra sentitzen dudalako, baizik eta egiteko beharra dudalako”

Badauka merkaturik zine mota honek?

Beti dago publikoa. Egia da gutxienena dela, baina horrela gertatzen da poesia mota guztiekin. Dena dela, ez dut zinea egiten komunikatzeko beharra sentitzen dudalako, baizik eta egiteko beharra senti-

tzen dudalako. Eta behar hori jasanezina izaten da batzuetan. Lana eginda dagoe-nean, bukatutzat ematen dut nire eginkizuna; hala ere, nire beste neu arduratsu hori agertzen zait gero: “ezin duzu kajoian utzi hainbeste diru eta ahalegin suposatu duen lan hau. Mugitu!”.

Urte batzuk daramatzazu filmerik egin gabe; proiekturen bat esku artean?

Gogo handia daukat, baina lana hasiz gero bukatu behar da... Eta seme txikiak oso txikiak dira oraindik. Seme-alabek energia gehiena kentzen didate; eta, gero, klaseak daude, artikulua... Etxekoandre eta profesional paperak batu zaizkit batzuetan, eta ufi! Horrela ez da disfrutatzen, eta bizitza honetan disfrutatzea dut helburu.

Pregunta por mí filme laburrak Goya saria jaso zuen 1997an, eta Haragia lanak ere hainbat sari jaso ditu. Zer dira golardo horiek zuretzat?

Ezer ez. Beno, ilusioa eta jarraitzeko gogoia ematen dizu, izan ere zure lanaren balioaz galdetu ahal diozu zeure buruari batzuetan... Sariak onak dira zure filmeak jende gehiagok ikusiko baititu, baina ez neure buruarentzat... Hurrengo egunean berdin-berdin altxatu behar duzu, lanera joan... Loteria suertatuko balitzait ilusio gehiago egingo lidake.

“Filme txikiak nitroglizerinazko pilulak bezalakoak dira: ikusi eta hazi txiki bat gelditzen zaizu barruan”

Hainbat artikulua eta liburu idatzi dituzu, eta horrenbeste jaialdiko epaimahaitan hartu duzu parte; zelan ikusten duzu animazio zinearen egoera?

Krisialdian gaudela entzun da betidanik eta aurrera jarraitzen dugu, hala ere. Egoera asko hobetu da: erraztu egin dira tresnak, zabaldu egin da jakintza... Instituzioen jarrera da aldatu ez den gauza bakarra, eta horra hor benetan daukagun arazoa. Oso kantera ona daukagu, baina lagundu egin behar zaio. Eta hori instituzioen erresposabilitatea da, nahiz eta konturatu ez diren oraindik. Estatu Batuekin ezin garela lehian aritu erabiltzen da argumentutzat, baina lehiakideak gure inguruan bilatu beharko genituzke, nire ustez. Ez badago dirulaguntzarik —eta ez da egoten— ezin da zinerik egin... Eta harri-garria da ikustea zenbat produkzio egiten diren diru gutxirekin! Gogoia, kalitatea eta



Filmografía

Geroztik ere (1993)
Hara-Hona (1994)
Zureganako grina (1996)
Pregunta por mí (1996)
Haragia (1999)



Haragia, 1999



Pregunta por mí, 1996

gaitasuna badaude, behintzat.

Animazio industrialari dagokionez ere produkzio ikaragarria daukagu Euskal Herrian, baina instituzioek konturatu gabe jarraitzen dute. Eta altxor horiek guztiak aprobetxatu egin beharko genituzke.

Bego Vicario produktorea sortu zenuen...

Bai, nire film laburren jabea neu izateko. Askoz erosoagoa da beste enpresa baten babespean lan egitea, baina lana baldintzatzen dizute beti... Esperimentatzea izan da nire bizitzako motorea eta horixe aholkatzen diot jendeari: gauza berriak egiten saiatu eta arriskuak bere gain hartzea.

Zergatik irakaskuntzan sartu?

Izugarri gustatzen zaidalako animazioa irakastea. Kurtso hasieran ariketa berdina egiten dugu urtero: pilota bat marraztu eta errebotatzen jarri grabitatea eta azelerazio kontzeptuak lantzeko. Eta flipatu egiten dut! Liluratu egiten nau mugimenduak; eta gero eta gehiago, gainera. Eskolak askatasun handiarekin ematen ditut, eta nire eskarmentua helarazi ahal diet ikasleei.

Mikel Zarateren omenaldiaren bideoan hartu duzu parte...

Aita argazkilaria zen, eta artxibo handi bat utzi zigun. Lezamako jende eta base-rrietako argazkiak agertzen dira bertan, eta Mikelen laguna izan zenez aita, nire bitartez berak ere omenaldian parte hartzea polita izango zela pentsatu nuen. Argazkiak bildu eta muntai txiki bat egin dut. Argazki eta oroimen horiek lezamarrekin konpartitu nahi izan ditut, besterik ez.

Gotzon Barandiaranek idatzitako Arrakalak poema libururako ere irudi



batzuk sortu dituzu ikasleekin batera.

Liburua argitaratu baino lehen, errezitaldiak emateko asmoa zuela esan zidan Gotzonek eta ea animatuko nintzatekeen irudi mugikor batzuk eratzera emanaldi horietarako. Ikasleekin hitz egin eta entusiasmo ikaragarriarekin hartu zuten proiektua. Bakoitzak poema bat hartu eta hilabete batez jo ta ke ibili ginen laborategian goiz eta arratsaldez irudiak garatzen. Oso esperientzia aberasgarria izan da eta hori bezalako proiektu gehiago egitea gustatuko litzaidake etorkizunean.

Buruan proiekturik bai, baina astirik ez, esan diguzu lehen...

Eta jakin badakit orain egin ezean ez ditudala inoiz egingo, hemendik bost urtera zentzua galduko dutelako. Baina gauzek nire bizitzarekin bat egin behar dute eta ezin horrek ez nau kezkatu behar. Bakean bizitzea, nire umetxoekin Larrabetzutik paseatzea, etxean laguntzea eta ikasleak motibatzea gauzarik inportanteenak dira nire bizitzan momentu honetan. Eta oraingo proiektuak ez badira, beste batzuk etorriko zaizkit hemendik jubilatuko naizenera arte. Seme-alabek eta ikasleek satisfazioa ematen didate gaur egun.

“Egin ahal nuen gauza bakarra egin dut euskaraz irakurtzeari laguntzeko”

Zergatik argitaratu duzu liburua euskaraz?

Liburu bat euskaraz argitaratzeak ilusio handia egiten zidan, baina zaila suertatzen zitzaidan, ez zuela merezi esaten zidaten: “Irakurri dizunak dagoeneko irakurria dizu”. Orduan, aldrebes egitea bururatu zitzaidan, hau da, liburua euskaraz argitaratzea, euskaltzaleek irakur dezaten, eta geroago gaztelaniazkoa argitaratzea. Gainera, euskal literaturarekin kolaboratzeko modu bat da. Etorkizunean euskarazko liburu gehiago argitaratzeko asmoa daukat. *Hautsi da katea* liburuari dagokionez, ekainean kaleratuko dira gaztelania eta frantsesezko bertsioak.

Kritikaren bat entzun da hortik...

Itzulpena baino ez dela esaten dute batzuek, baina niri ez dit ardura. Jatorrizko nobela da, eta neuk gura izan dudalako argitaratu da euskaraz. Euskarari egin ahal zaizkion ekarpen guztiak positiboak direla uste dut. Hogeita hamar urte daramatzat euskararen inguruan lan egiten: Kukubiltxo sortu genuen, euskarazko saioak ere egin ditugu ETBn, euskararen ikaste prozesuan txotxongiloak erabiltzeko ikastaroak eman ditut... Azken liburu hau lan horren jarraipena baino ez da. Zuzenean ezin dezaket euskaraz idatzi; beraz, egin ahal nuen gauza bakarra egin dut euskaraz irakurtzea bultzatzeko. Nobela hau argitaratu dut, seme-alabek eta bilobak euren arbasoen hizkuntzan irakur dezaten; eta, jakina, irakurle euskaldunentzat, eta baita neuretzat ere. Oso harro nago.

Erdi Aroan murgiltzen dira zure nobelak; hau, berriz, Frantziako Iraultzan girotu duzu.

Iparraldean kokatu dut istorioa; alde batetik, herri ezezaguna dugulako ikuspuntu historikotik, eta bestetik, Iparraldea eta Hegoaldea garen moduan —erkidego kultural bat— batzeko. Eta zergatik Frantziako Iraultzan? Orduan gertatu zirelako niretzat erakargarriak diren gai batzuk: foruen gale-



Testua: Ixaso Marina
Argazkia: Aritz Albaizar

Toti Martinez de Lezeak euskarazko lehendabiziko liburua argitaratu eta arrakasta itzela izan zuen Durangoko Azokan. AIKOR! aldizkaria solasean izan da Larrabetzuko idazlearekin.

“Etorkizunean euskarazko liburu gehiago ateratzeko asmoa daukat”

ra, euskarari eginiko mesprezua, muga herrietako euskaldunen deportazioa... Istorioa gertakari horietan kokatu dut, beraz. Protagonista bere familiak baztertutako mutil bat da, 25 urteren buruan mendeku hartzera itzultzen dena. Ikuspuntu politiko eta historikotik oso garai interesgarria gertatzen da istorioa, baita emoziozko ikuspuntutik ere.

Markak hautsi zenituen Durangoko Azokan...

Liburuak ez dira hain erraz saltzen, eta irakurleek zure liburua erostea arrakasta handia da, baita saldutakoak 10 edo 20



ale badira ere. Eta egun bian zure liburua 1.000 pertsonak erosten badute, poztasun handia hartzen duzu. Liburuaren bigarren edizioa argitaratu da, eta normal saltzen ari da. Salmentei dagokionez, euskal literatura beti doa astiro, baina aurrera doa, eta hori da inportanteena. Beste alde batetik, izugarritzko poztasuna hartu nuen, liburua hainbeste gaztek erosi zutela ikusita. Gazteek irakurtzen ez duelako ustea hankaz gora jartzen du horrek.

Gaiaz aldatuta, orain dela gutxi parte hartu duzu Bizkaia Martxan dendarien elkarteak emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko bultzatutako kanpainan...

Ezta minutu bat gehiago ere... erasorik ez kanpainan zazpi idazlek hartu dugu parte, eta esaldi bana idatzi dugu. Nirea hauxe da: "Ez ezazu gehiago itxaron. Bizimodu berri bati ekin iezaiozu, eta horretarako, urrundu zaitez atzo maitasuna eta

Bibliografia

La calle de la judería (1998)
Las torres de Sancho (1999)
La herbolera (2000)
El señor de la guerra (2001)
La Abadesa (2002)
El mensajero del rey (2002)
Los hijos de Ogaiz (2002)
Euskal Herriko Leiendak (2002)
La Voz de Lug (2003)
La hija de la luna (2003)
La Comunera (2003)
Antso III Nagusia (2003)
El verdugo de Dios (2004ko urrian)
Hautsi da katea (2004)

begirunea agindu zizun, baina gaur beldurra eragiten dizun pertsonarengandik". Emakumeen kontrako indarkeria ez da gauza berria, historian beti izan da halakorik. Beste jokabide batzuk aldatu diren

"Durangoko azokan hainbeste jende gaztek liburua erosteak izugarritzko ilusioa egin zidan"

moduan espero dut denboraren poderioz tratatu txarra jasaten duenak ez ezik guztiok ere izatea erasotzailea salatzeke gauza.

Zerekin etorriko zara hurrengoan?

Hurrengo liburua laster kaleratuko da, eta ez dauka zerikusirik nobelarekin. *Los grafiti de mamá* du izenburua, eta 50 urte-tik gorako emakume baten bakarriketa ironikoa da. Bertan gai askori buruz mintzatzen naiz: loditasuna, ile urdinak, senarrak, seme-alabak, etxeko lanak... Emakume horiei irribarrea sorraraztea dut helburu.

Merkataritza euskalduntzeko plangintza



Gure eskuetara txosten bat heldu da, 2004ko iraileko datarekin eta izenburu luze honekin: *Merkataritza Euskalduntzeko Plangintza* baten azterketa kritikoa: *Txorierriren kasua* . Bertan azaltzen dena gehiago sakontzeko asmoz, egilearengana jo dugu; Txerra Rodriguezengana, hain zuzen ere.

Zer dela eta egin duzu ikerlan hau?

Pasa den ikasturtean Hizkuntza Plangintza (HIZNET) gradu ondokoa egin, eta bukatzeko lan bat egin behar izan nuen. Lan hori da eskuartean duzuen. Zergatik gai hau? Ba, alde batetik, zerbait erabilgarria egin nahi nuelako, ez erabat teorikoa. Eta beste alde batetik, aukeratzekotan bertoko plangintza bat aukeratu nahi nuelako, ez hemendik urrunekoa. Gainera, sarritan iruditzen zait ez ditugula behar bezala aztertzen aurrera eramaten ditugun plangintzak eta, noizean behin, ez dago gaizki hauek begiratzea.

Zertan datza ikerketa? Zer ikertu duzu?

Txorierriko Mankomunitateak eta Artez enpresak aurrera daramaten plangintza izan da ikerketa gai. Ikerketa aurrera eramateko, Txorierriko osoa kontuan hartu beharrean, herri bat baino ez dut hartu, lanaren dimentsioak herri guztietan azterketa sakona egitea ezinezkoa egiten baitzuen. Herrien artean Derio aukeratu dut, biztanlerik eta merkataririk gehien duen herria baita. Ikerketa, beraz, Derio izan da eta plangintzaren balantzea eta aurrera begirako proposamenak egiteko ez dut erabili bakarrik neure iritzia. Hainbat eragileren iritzia ere hartu dut kontuan: Derioko merkatariek, Derioko Udala, Tximintx euskara elkarteak, Mankomunitateko teknikaria eta Artez-eko arduraduna. Gainera, plangintzan parte hartu duten Derioko bost merkatariekin eztabaida talde bat eratu nuen.

Gaiari buruzko marko teoriko baten hutsunea aipatzen duzu. Zergatik?

Aurretik esan dudana bezala, Euskal Herrian plangintza pila bat dago martxan. Plangintzaren herrian bizi gara, baina gero herren gaude plangintza horiei taxuzko jantzi teorikoa asmatzen. Adibidez, herri eta auzo askotan daude merkataritza euskalduntzeko plangintzak, baina orain arte ez



Merkatariei konpromisoa eskatzeaz gain, itzulpenak, euskarazko klaseak eta abarrek zerbiztuak eskaintzen zaizkie

“Hizkuntza paisaia nabariak dira egindako aurrerapausoak, baina hortik kanpo ezer gutxi eman du. Gizarte erabileran ez du izan eraginik”

da hauek guztiak bilduko dituen marko teorikorik egin. Praktikan oso aurreratuta gaude, baina ez horrenbeste praktika horren hausnarrean. Nire ekarpena izan da ikerketa hau, baina bide luzea dago oraindik egiteko.

Atal batean gaur egun merkataritza euskalduntzeko plangintzen azterketa konparatiboa egiten duzu. Laburtu ahal

diguzu zer egiten ari den Euskal Herrian.

Nahiz eta plangintza asko egon, gehienek antzeko ezaugarriak dituzte. Ezaugarri nagusia borondatezotasuna da, hau da, plangintzetan parte hartzen dutenak euren borondatez ari dira, ez derrigortuta. Merkatariek proposatzen zaien konpromiso bati heltzen diote. Horrez gain, guztietan erakunde publiko batek esku hartzen du, esku hartzea oso ezberdina bada ere plangintzatik plangintzara. Hirugarrenik, plangintza guztietan merkatariei konpromisoa eskatzeaz gain, zerbiztu batzuk eskaintzen zaizkie: itzulpenak, kartelak eta abar euskaratzea, euskarazko klaseak, ziurtagiriak...

Txorierrira etorrita, orain dela urte batzuk plangintza bat martxan jarri zen. Zeintzuk dira bere ezaugarriak?

Txorierrikoa ez da besteetatik asko bereizten. Txorierriko Mankomunitateak

“Elkarlanaz baino elkar gidaritzaz hitz egingo nuke, plangintzaren erabakiak eta aplikazioak eragile guztien artean hartzea, alegia”

gidatzen du eta Artez zerbitzu enpresak kudeatzen du. Iaz 5 urte bete zituen eta Txorierriko 126 merkatarik sinatu dute konpromisoa. Zerbait azpimarratzekotan, kanpainaren eskualde izaera aipatuko nuke. Beste plangintza gehienak herri izaerakoak dira eta hau, berriz, ez. Eskualdekoka izateak erronka polita planteatzen du. Izan ere, herrien errealitate soziolinguistikoa oso ezberdina da. Beste alde batetik, beste herri batzuetan merkatarik guztiengana jo dute hasieratik. Txorierriin, aldiz, urtero merkatarik sektore bati ekiten diote bereziki.

Zein da egin denaren gaineko zure balorazioa?

Ikerketan zehar balorazioa ez dut neuk bakarrik egin, lehen esan dudana moduan. Baina nire iritzia eskatu didazu eta eman egingo dut. Argi dago plangintzak fruituak eman dituela, baina ez du eman behar beste. Hizkuntza paisaia nabariak dira egindako aurrerapausoak, baina hortik kanpo ezer gutxi eman du. Gizarte erabilerran ez du izan eraginik.

Txostenean plangintza hobetzeko proposamenak aipatzen dituzu. Zeintzuk?

Proposamenak ere eragileek eurek proposatu dituzte eta nik, nolabait, borobildu. Hainbat daude, baina nagusiak baino

Txorierriko 126 merkatarik hartzen dute poarte plangintzan



ez ditut aipatuko. Lehenik eta behin, guztiok aipatu zuten eragileen arteko elkarlana gehitzea. Baina sarritan gertatzen den bezala, ez ziren ados jarri elkarlan hori zelan gauza daitekeen azaltzerakoan. Dena den, partaideak zeintzuk ziren argi geratu zen: Mankomunitatea, Artez, merkatarik eta bezero euskaldunak. Nire ustez, hala ere, elkarlanaz baino elkar gidaritzaz hitz egingo nuke, plangintzaren erabakiak eta

aplikazioak eragile guztien artean hartzea, alegia.

Horretaz aparte, bestelako ideiak ere jaurti ziren: bezero euskaldunen presioa areagotu, kanpainaren publizitatea hobetzea... baita gauza teknikoagoak ere: segimendua estutu, diagnostikoa berritu, dinamizatzailearen bisitaren ingurukoak...

Testua: Bestorrene

Txorierriko lehenengo parke botanikoa

Txorierriko lehenengo parke botanikoa izan daitekeena sortze prozesuan dago Lezaman. Horrenbestez, industriad, etxebizitzetaz eta azpiegiturretaz betetzen ari zaigun haran zoragarri eta eder honetan, aisialdirako nahiz didaktikarako leku paregabea izango dugu aipaturiko parkea hurrengo udatik aurrera.

Parke Botanikoaren definizioa

Parke botanikoa zer den edo zelakoa izan behar duen ez dago arauturik, baina gehiegi okertu barik esan genezake landareak, batez ere zuhaitzak eta zuhaixkak, eta sarritan exotikoak, hazi eta erakusten diren tokia dela. Edozelan ere, parke botaniko gehienak erabat egin berriak diren bitartean honako honen oinarria, eta atalik funtsezkoena, baso naturala izango da.

Euskal Herriko basoaren historia

Jatorrizko basoa Euskal Herrian neolitoarekin batera hasi zen aldatzen. Izan ere, gizakia duela bost bat mila urte lehenengo baso-soilketak egiten hasi zen bai nekazaritzarako, bai abeltzaintzarako. Geroago, Ertaroaren ostean, hau da hamabosgarren mendetik aurrera, baso-soilketa itzelak egin ziren eta horren aurkako neurriak hartu behar izan zituzten. Aipatutakoaren eraginez, duela 5.000 urte Euskal Herrian ez zegoen pagoa Neolitoko lehenengo baso-soilketekin batera etorri zen Adriatikotik. Gaztainondoa bera ere ez zegoen duela 2.000 urte, eta erromatarrek ekarri ei zuten. Geroago akazia, eukaliptoia eta hainbat pinu mota ere ekarriak



Kima Landarak garden—centerrean hasten da parkearen ikustaldia

izan dira, gure artean hain ugaria den intsinis pinua tartean.

Beraz, jatorrizko basoa zer den zehaztea zaila bada ere, azken ehun urteetan,

gutxienez, gizakiak ukitu gabeko basoa hartuko dugu baso naturaltzat, eta aipatzen dugun Lezamako hau horietakoa dugu.

Ertaroaren amaieran baso-soilketa itzelak egin ziren eta gaur egun XIX. mendean baino hiru aldiz zuhaitz gehiago dago.


Lezamako parke botanikoa

Lezamatik Fikara doan errepidetik joanda Goitioitzako azken baserri multzoa pasatutakoan, ezkerretara jo ezkerreko bide estu eta bukolikoa aurkituko dugu, non ingurunearen berdetasun bereziak, munek eta maldek antzinako paisaia gogoraziko diguten. Bidearen amaieran “Kima Landarak” izeneko garden-centerrak begiak alaituko dizkigu. Eta hantxe bertan hasten da 20.000 metro koadro dituen parkearen ikustaldia. Ehun zein berrehun urteko haritzek tartea egiten diete pagoei, urkiei, elorri zuriei, arteei... Horien gerizpetan ereinotzek eta gorostiek argiaren bila altxatzen dira. Han-hemenka artelatza, pinu beltzak, gaztainondoak nahiz intxaurreondoak, batzuk aipatzearen,



Orain 500 zuhaitzetik gora dago, eta beste hainbat landatuko dira parkea osatzeko

San Martin Parke Botanikoa



zuzentzen dira zerurantz, batzutan artez, bestetan oker, baina beti eder. Ikuskizun zoragarria. Berrehun urte baino gehiagoko zuhaitzak izango dira parkearen oinarria.

Parkearen antolamendua

Parkearen ikustaldia errazteko hainbat bidezidor izango ditugu eta ibilbidean zehar landareez gain erreka eta gardenak ere izango dugu bidelagun. Orain 500 zuhaitzetik gora dago bertan eta beste hainbat landatuko dira parkea osatzeko. Modu horretan zenbait gune izango ditu, besteak beste hostozabalena, koniferoe-

na, lurrintsuena –usaina ematen dutenena–, azpitropikalena eta mediterraniarrena (ikus planoak). Landatutako horien artean gurbitzak, zitrikoak, palmazeoak, zedroak, pizeak eta beste hainbat zuhaitz aurkitu ahal izango ditugu. Ibilbideari jarraituz baseliza baten aztarnak ikusteko modua ere izango dugu eta parkearen beste alde batean urmael bat izango dugu uraren lasaitasunaz gozatu ahal izateko.

Bost gune izango ditu parkeak: hostozabalena, koniferoena, lurrintsuena –usaina ematen dutenena–, azpitropikalena eta mediterraniarrena.

Aurkikuntza: San Martin baseliza

Parkeak edukiko duen beste berezitasun bat bertan lanean zebiltzala aurkitutako baseliza baten aztarnak dira. Izan ere, baseliza hori aspalditik jotzen zen desagertutakotzat eta inguruko zaharrenek ere ez zuten, euren arbasoei entzunda baino, ezagutzen. Hasiera batean aztarnak baino ez dira ikusiko, baina ondo legoke, ikerketa baten ostean, lehen eduki zuen itxurarekin berrekitzea, orain arte lortutako informazioaren arabera 500 urte baino gehiago baititu. Baselizaren izena Azuriko San Martin zen, eta hortik datorkio, hain zuzen ere, San Martin izena parke botanikoari ere.

“Mota askotako landare eta zuhaitzez gozatzeaz gain, urmaela eta baseliza baten aztarnak ikusteko modua izango dituzte parke botanikoa bisitatuko dutenek”

Espezieen azalera (ha) Bizkaian

Koniferoak					Hostozabalak				
Intsinis pinua	Larizio pinua	Laritza	Itsas pinua	Beste batzuk	Pagoa	Artea	Haritza	Eukaliptoia	Beste batzuk
79.726	1.606	1.196	7.594	2.942	1.240	5.210	1.470	3.760	14.100

Baso-azalera (ha) Bizkaian

Guztira	Hostozabalak	Koniferoak	Lurralde-Azalaren %
128.245	35.182	93.063	58

Zamudioko Arroeta Mendi Taldea



Testua: Ixaso Marina
Argazkiak: Arroeta

“Gogoa baino ez da behar taldean izena emateko”

Herrian aspalditik zegoen halako talde baten beharrizana. Orain dela gutxi, Udalak mendi irteera bat antolatu zuen Hiru Erregeen Mahaia igotzeko, eta hura izan zen taldea osatzeko bilatu zen aitzakia. Batzarrak egin ziren eta abenduan taldea osatzea erabaki zuten. Jon Arostegi taldeko presidenteak eta Arkaitz Unzueta idazkariak proiektu honen berri eman diote AIKOR! aldizkariari.

Zenbat taldekide zarete?

Berrogei lagun gaude; hala ere, badira beste hogeita hamar inguru, laster izena emateko asmoa dutenak. Gehienak hogeita bost urtetik gorakoak izan arren, ume batzuk ere badira taldean.

Oso talde berria da zuena, aurrera egiteko laguntzarik?

Udalak utzitako lokaletan egiten ditugu batzarrak, eta gaur-gaurkoz bazkideek jarritako diruarekin egiten dugu aurrera. Gure iritziz izango ditugun gastuen aurrekontua prestatu eta Udalari bidali diogu; orain haien erantzunaren zain gaude. Bazkideek ematen duten diruari dagokionez, bazkidearen adina kontuan hartuta hiru kuota ezarri dira

taldearen gastuetarako. Irteerak autoz egiten ditugu, eta gasolina eta autopista ordaintzeko beste diru kopuru txiki bat jarri behar izaten da.

Berrogei lagun zarete, beraz. Kopuru hori ez dago txarto, baina taldekide gehiago izatea gustatuko litzaizueke?

Bai. Ehun bat bazkidera heltzea gustatuko litzaiguke. Izena eman gura duenak nahikoa du gure lokaletik (Aresti, 2) pasatzea, martitzen eta barikuetan, iluntzeko 8etatik 9etara. Bertan prest gaude elkartearen berri emateko eta edozein zalantza argitzeko. Mendi taldean gura duten guztiek har dezakete parte. Ez da behar esperientziarik. Gogoa edukitzea nahikoa da. Jende asko

“Mendira taldeka joatearen gauzarik politena solidaritatea da: baten bat atzean geldituz gero itxaroten zaio”

mendizalea da, baina arrazoi bategatik edo besteagatik bakarrik doa mendira. Guk talde batekin joateko aukera eskaintzen diegu. Talde batean zoazenean, gauzarik politena solidaritatea izaten da: baten bat atzean geldituz gero itxaron egiten zaio. Animatu!

“Herrik pasatzen diren ibilbideak seinaleztatzeko asmoa daukagu”

Txorierrin badira beste mendi talde batzuk. Pentsatu duzue inoiz haiekin batera zerbait antolatzea?

Burutik pasatu zaigu, baina ez dugu eurekin hitz egin. Oso talde berria gara, eta orain gure kezka nagusia da taldea antolatzea eta programazioa zehaztea... Baina polita izango litzateke, izan ere, gauza pila bat egin genezake elkarrekin: kanpora joateko autobus bat osatzea, adibidez. Hilean behin mendi ibilaldi bat egiteko asmoa dugu, eta taldekideren batekin txango batera joaterik ez badauka, Txorierriko beste talde batekin joateko aukera eman ahal izango zitzaien...

Hilean behin irteera bat orduan...

Urtean zehar 12 irteera egiteko asmoa daukagu: zortzi, egun batekoak, eta besteak, bi edo hiru egunekoak. Eta baliteke ere gehiagotan joatea; herriko elkarrekin

proposamenen bat egingo balute, aztertu egingo genuke.

Irteerarik egin duzue talde moduan?

Bai, abenduan Udalatxera igoteko asmoa eduki genuen, baina elur zaparra da itzela bota zuen eta azkenean Atxartetik Larrano bitarteko ibilaldia egin genuen. Leungane eta Artatxagane mendietan ere egon gara hil honetan. Hasi berriak gara, eta dena martxan egin behar izaten da harik gauzak ondo antolatuta eduki arte. Urte honetan ez dugu egutegi zehatzik izango, baina etorkizunari begira urte osorako plangintza egiteko asmoa dugu.

Eta Euskal Herriko kanpo irteteko asmorik?

Bai, Pirinioetara joan nahi dugu. Izabara martxoan joatea gustatuko litzai-guke... ea diru laguntzarik jasotzen dugun. Han menditik ibili ez ezik eskia edo beste jarduera batzuk egiteko aukera izango genuke.

Ibilbide horiez gainera, zeintzuk dira zuen asmoak?

Biblioteka bat osatzeko asmoa dugu, bazkideek bertan kontsulta dezaten behar duten informazioa. Hitzaldiak eta ikastaroak eman nahi ditugu, materiala alokatu... Beste alde batetik, Udalarekin hitz egin dugu, eta baliteke herriko pasatzen diren ibilbideak seinaleztatzeko.



“Polita izango litzateke irteerak eta abar antolatzea Txorierriko beste mendi taldeekin batera”

Eta zer dauka mendiak?

Beharbada, herrialde menditsuan bizi garelako izango da, baina euskaldunok berez dugu joera mendira. Euskaldun sentitzen garen moduan mendizale sentitzen gara. Horrezaz gainera, hiriak kentzen dizun lasaitasuna mendiak itzultzen dizu. Taldean joanez gero, inguru natural eta lasai batean beste batzuekin hitz egiteko aukera duzu, mendi kontuetan jantzita dagoen jendearekin irteten bazara hainbat gauza ikas ditzakezu... Eta esfortzu bat egin ondoren, ez dakit noraino ailegatzeak poztasun handia ematen dizu... Laburbilduz, askoz hobeto sentitzen zara mendian.

Aholkatu irteeraren bat.

Berreaga-Bizkargi ibilbidea oso polita da Txorierriko beste ikuspuntu batetik ezagutzeko. Mungialdea ere ikus daiteke bertatik.


Ehun bat bazkidera heltzea gustatuko litzaike Arroeta Mendi taldekoei



Euskal Herriko 180.000 gazte immunizatuko dira meningitisen aurka

Gripe izurrite itzela badaukagu ere, hau ez da arreta jarri zaion gaixotasun bakarra. Osakidetzak C motako meningitisaren aurkako txertaketa kanpaina jarri zuen martxan hilaren 10ean. Kanpaina honek Euskal Herriko 180.000 gazte immunizatzea du helburu.

C motako meningitisaren aurka txertatzeko kanpaina 11 eta 20 urte arteko gazteei zuzenduta dago, eta Euskal Herriko institutu eta ikastetxeetan hasi zen urtarri-leko lehenengo egunetan. Gazte hauei 1997an jarri zieten C motako meningitisaren aurkako txertoa; hala ere, urte bi geroago beste txerto eragingarriago bat ateratu zen merkatura, eta hori izango da aurten emango zaiena. Osakidetzak martxan jarri du kanpaina hau, azken hilabeteotan kolektibo honen artean gaixo kopuruak gora egin duelako.



Datu batzuk:

Hala ere, Osakidetzak azaldu du gaixoak ez direla asko, eta ez dagoela izurriterik.

Gaixotasun motak: arruntenak B eta C dira. Biak larriak dira eta hilgarriak izan daitezke. B motako meningitisarentzat ez dago txertorik.

Adina: Gaixotasunak eragin handiagoa dauka 10 eta 20 urte arteko gazteen artean. Hamaika urtetik beherako umeei txertoa jarri zitzaion 2000. urtean.

Sintomak: sukar handia, buruko mina, gonbitoak, orbainak larruazalean. Amigdalitizat har daitezke.

Txertoaren iraupena: Bizitza osorako iraun dezake, baina, hori egiaztatzeke, urteak pasa beharko dira.

Gaixo kopurua: Euskal Herriko hogeitazte C motako meningitisa izan zuten iaz. Haietatik sei hil ziren. Aurten gazte bat hil da B motako meningitisak jota, eta beste zortzi bat ingesatu dira Basurtu eta Gurutzetako ospitaleetan. Batzuek B motako meningitisa izan dute.

Prebentzioa: Prebentziorik onena txertoa jartzea da.

Kutsatzea: Kutsakorra da, baina oso kontaktu estua izan behar da, gaixorik dagoenak beste pertsona bati kutsatzeko.

Sakeleko telefonoa lore bihurtuta



Hamaika ikusteko jaioak gara! Ez dakigu zer sinistu, baina hurrengo albiste hau topatu dugu sarean: Warwick unibertsitateko zientzialari britainiarrek sakelako telefonoen karkasak birziklatu eta lore bihurtzeko era topatu dute. Horrela azaltzen da iWord aldizkari elektronikoa, behintzat.

Hainbat ikerketaren datuen arabera, sake-lako telefonoak etengabe botatzen dira zakarrontzira, modernoagoak erosteko. Ingurumen erakundeak kezkatuta dabilta gai horrekin eta birziklatzeko materialak erabiltzera presionatu dituzte enpresak.

Warwickeko zientzialariak buru belarri ibili dira lanean eta landatu ondoren lore bihurtuko den karkasa bat sortu dute. PVAXX Research and Development eta Motorola enpresen laguntza izan dute behar horretan.

Iradokizunak

www.kimuak.com

Euskal zinemagileen laburmetraiak topatuko dituzu webgune honetan. Kimuak egitasmoaren bidez, Euskadin ekoiztutako filme laburrak berton nahiz munduan zehar hedatzeko asmoa dauka Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Web orrialdean 2004. urtean egindako lanak agertzen dira; Koldo Almandozen "Amuak" eta Sara Bilbatuaren "El aire que respiro", besteak beste.

www.galtzagorri.org

Galtzagorri elkarteak 1990. urtean sortu zen eta euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutaraztea du helburu. Elkartearen lanari buruzko informazioaz gainera, hainbat euskal idazle, irudigile eta ipuin kontalariren jarduera profesionalak batzen dira webgune honetan. Behinola haur eta gazte literatura aldizkaria ere topa dezakezu bertan.

Microsoft zigortuta

Europako Batzordeak 497,2 milioi euroko isuna jarri dio Microsoft enpresari, merkatuan monopolio-jarrera izateagatik. Bruselak enpresa bati jarritako multarik handiena da hori. Ikerketak bost urte iraun ditu eta antimonopolio-legeak urratzea leporatu zaio Microsoft enpresari. Horrezaz gainera, lehia librearen kontrako jarduerak aldatzeko exijitu zaio. Enpresak epaiaren kontra errekurtsua egingo du, ziur asko.

Informatika-birusak nabarmen handitu dira 2004an

Sophos enpresaren datuen arabera, informatika-birusak %51,8 handitu dira 2004. urtean. Birusik kaltegarrienetariko bat Passer izan da, eta ordenadorerik gehien kutsatu duten gusanoak Netsky-P eta Zafi-B ditugu. Horiek erasoen %40a egin dute. Sasser eta Netsky-ren B, D eta Z bertsioak ere birusik kaltegarrienetarikoak izan dira iaz.

BillardGL jokoa euskaraz

3Arrano Euskalgintza Taldeak BillardGL jokoa euskaratu du. Hori hiru dimentsiotan atondutako billar jokoa da, eta www.3arrano.webgune.net helbidean lor daiteke Windows eta Linux sistema eragileetarako. Billarreko arauak ere modu errazean azaltzen dira.

...eta atara daiela Derioko plazan

“Hala bazan ala ez bazan, sar daiela kalabazan eta atara daiela Derioko plazan”. Hainbat aldiz entzun dut nik delako esaera hau umeentzako (eta ez hain umeentzako) ipuinen bukaera gisa. Eta sarritan galdetu diot neure buruari zergatik agertzen ote den Derioko plaza eta ez Errigoitiko edo Elantxobeko plaza, adibidez. Bitxia egiten zitzaidan Derio bezalako herri bat agertzea, historian zehar garrantzi gutxiko herria izan baita (biztanle gutxi, aberastasun gutxi...).

Baina urteen poderioz, galdera horri erantzuna aurkitu diot. Esaera horrek esan gura du kontuz ibiltzeko ipuinek kontatzen dutenarekin, ez dutelako egia osoa kontatzen. Esaera hori, beraz, abisu bat da, ez besterik. Orduan guztiz ez sinisteko erabiltzen dira kalabazaren eta Derioko plazaren metaforak. Kalabazarena erraza da ulertzen, baina Deriorena ez hainbeste.

Deriok orain gutxi arte plazarik ez du izan. Beraz, ezinezkoa da Derioko plazan ateratzea eta, hori dela eta, ez sinistu guztiz ipuinak dioena. Eta zergatik Derio? Euskal Herrian plazarik gabeko herri gutxi eta, hortaz, Deriok zer esana eman beharko. Baina, esango didazue arrazoi osoz: Deriok plaza dotorea du udaletxe ondoan, ze pitokeria esaten duzu zuk? Ba bai, egia da, baina ez dugu ahaztu behar orain dela urte gutxi arte Derioko erdigunea ez zegoela gaur egun dagoen lekuan, ezta hurrik ere. Derioko gune historikoa San Kristobal elizaren inguruan eratzen zen, gaur egungo erdigunetik



dezente urrun. Eta hantxe, itxura guztien arabera, ez zegoen plazarik.

Gaur egun, San Kristobal elizaren ondoan Zeroetxe izeneko plazarik bat egon badago. Baina plazarik hau nahiko txikerra da, herriko plazarik hartzeko behintzat. Beraz, Derion, Euskal Herrian ez bezala, plaza itxurosorik ez (edo pla-

zarik ez, plazarik hau berria izan daiteke-eta) eta ahozko transmisioari esker gure belarrietara iritsi da. Ai ene, xelebreak dira herri xehearen historiaren bideak.

Eta hala bazan ala ez bazan...

Testua eta argazkia: Bestorrene



Praga, udazkenean ere eder

Goizeko ordu biak ziren Pragara heldu ginenean Hispanitatearen eta Arrazaren Egunetik ihesi. Autobusak garaiz hartu gintuen eta turistok apurka-apurka geure hoteletara heldu ginen. Hotel baten atarian ordu erdi bat edo eman izan genuen eta atoan hasi ziren batzuen kexak. Zer pazientzia gutxi daukagun batzuetan eta zein arin barneratzen ditugun auzokoen, hispanoen, arrazakoen nagusikeriak.

Hurrengo egunean goiz jaiki ginen, eta barruak majo berdindu ondoren Txekiako hiriburu zaharra goitik behera ezagutzeko prestatu ginen. Eliz, parke, zubi eta museorik ospetsuenak ikusi genituen, eta benetan aitortu behar da ederrak direla eta merezi duela honelako hiri bat eza-gutzeak; eta garagardoaren prezioak ere, kantitatea eta kalitatea kontuan hartuz gero, herri idealtzat har daitekeela Praga.

Esan behar dut gehien harritu ninduen eskaintza kulturala izan zela. Antzoki Nazionalean ikuskizun apartak eskaintzen zituzten egunero. Bertan ikasi nuen antzerki beltza zer zen: iluntasuna aprobetxatuz argiekin itzelezko jolasak, musika eta dantza tartekatzen zituzten. Deigarria egin zitzaidan ikustea txekiarrek elizei beste betebeharrak bat nola ematen dieten, nola errekonbertitzen dituzten; eliza



Aukera kultural handia dago Pragan

gehienak kontzertuak emateko erabiltzen dituzte. Ia aukera horiek guztiak aprobetxatu genituen. Zergatik ote da, kanpora goazenean kultuagoak egiten garela eta etxe ondoko museoak ikusi ez badugu ere kanpokoak ikusi behar dugula eta eder iruditzen zaigula? Horretarako ez daukat erantzunik.

Amaitzeko, aukera kultural guztiak kontuan hartzearen, gastronomiari ere bere lekutxo egin genion. Eguneroko menuez gain, italiar jate-txeetatik aparte, bi pibobar (pivó garagardoa da) bi zerbezera edo garagardotegi bisitatu genituen. Bigarrena, ospetsuena, "U Fleku". Ez genuen txarto jan baina zorte txarra izan genuen. Espainiar piloa zegoen eta hispanitatearen, arrazaren, eguna zenez, hara non hasi ziren vivaespañaka eskusoinu eta guzti; eta gu, bitartean, horrenbeste kilometro egin izanaren zama sentitzen. Beldur naiz, geu ere, Ibarretxe planaren ondorengo euskaldunok ez ote garen horrelakoak egingo.

Testua eta argazkia: Iñaki Astorkiza

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Pernil kroketak

- Litro bat esne
- 6 koilarakada urun
- 100 gramo mantekilla
- Arrautza 2
- 150 gramo pernil
- Gatza

uruna bota eta eragin piti bat, surtatik albora eginda, ondo nahastau arte. Gero esnea pitika-pitika bota eta eragin geratu barik irakin arte. Bota pernila eta arrautza egosia txikituta. Probau eta, gatzik behar badau, egin. Euki surtan 10 bat minutuan irakiten eta geratu barik eragiten. Atara bandeja batera eta itxi ondo hotzituten. Ostean, eskuak urunetan sartu, bolatxoak egin, arrautzatan eta ogi birrindutan pasau eta prijidu.



Mari Tere Onaindia

Prestatzeko era

Lapiko baten mantekilla urtu. Ostean,

Pernil eta arrautzagaz ez ezik, beste osagai batzuek bezala egin daiteke, berba-

rako: makailo, okela egosi, espinaka... On egin!

Berenjenak mediterraneo erara

Osagaiak:

- 4 berenjena
- 3 berakatz ale
- Piper gorri bat
- Tomate bi
- Albahaka osto batzuk
- Oliba baltzak (50 gr)
- Alkaparra goilarakada bat
- Almendren ahutsa goilarakada bi
- Oliba olio
- Gatza

Zelan egin:

Berenjenak zatitu zentimetro bateko xerretan eta itsas-gatza bota eta ordu erdi batez koladore baten gainean itxi. Gero ondo lehortu eta frijidu olio bero-beroan.

Berakatzak zuritu eta zatitu, piperra zatitu, tomatei be azala kendu eta txiki-



Zerurena jatekoa Sondikan

txiki zatitu. Berakatzak eta piperrak salteatu eta gero gehitu tomateak, albahaka ostoak txikituta eta gatz apurtxu bat bota. Euki egosten 15 minutuz eta azkenik alkaparrak, olibak eta almendrak bota eta bost minutu gehiago euki sutan; gero

sutatik aldendu eta erreposatzen itxi.

Platteran ipinteko berenjena artean salteadua tartekatu eta olio apur bat bota ganetik

On egin. Gora barazkiak!

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

Sukaldean: mila eta bat errezeta
etxean egiteko

Ortziren hortza

Jose txo Orueta

888 txiste

Kike Amonarriz

Alqueidoneko iratxoa

Marilar Aleixandre

Euriaren seme alabak

Balezaleak eta kortsarioak

I. Mendizábal

Euskal bidaiariaren memoria

A, Martínez Salazar

DISKOAK

Gaueko lan musika. Xarnege

Errabal jazz. Víctor de Diego

Chillida lekutik. Ansorena,
Senperena

Nire anaiaren kotxeko argiak.
Txuma Murugarren



DENBORA PASA

LETRAZOPA

Aurki itzazu ondoko letrazopan **Txorierriko 7 auzoen izenak**. Herri bakoitzeko bana dago. Erantzuna jakin nahi baduzu hurrengo aldizkarian agertuko da.

Kontutan hartu goitik behera, behetik gora, ezker eskuin, eskuin ezker zein diagonalean aurkitu daitezkeela.

A	D	J	L	P	G	R	E	S	F	Z	O	K
I	R	R	E	I	O	G	M	I	M	D	Z	F
M	R	B	G	F	I	L	G	U	L	O	I	B
U	G	A	N	U	K	T	K	E	R	D	N	R
B	K	I	Z	A	O	N	G	X	A	I	L	D
E	Y	A	O	T	E	J	O	H	P	G	Y	J
P	L	R	B	E	L	I	Z	A	R	T	Z	A
D	X	T	K	O	E	O	L	E	I	K	E	X
M	H	Z	P	R	X	O	I	R	G	A	T	I
G	O	A	N	U	A	L	U	A	S	H	M	Y
J	D	S	M	A	L	S	D	N	R	O	X	B
T	E	I	T	L	D	M	I	I	U	A	M	P
A	O	F	M	H	E	Z	H	B	J	N	G	J



Antzerkia eta filmak

Zamudio. *Garfield*, otsailaren 4an; *Unibertsolariak*, otsailaren 18an; *Euriaren seme-alabak*, otsailaren 25ean. Dorretxean

Aratustekak

Derio. Otsailaren 4an. Kalejirak, musika, animazioa...

Zamudio. Otsailaren 4an eta 5ean. Tostada lehiaketa, dantza, maskara eta makillaje tailerra...

Lezama. Otsailaren 5ean, 18:00etatik aurrera. Artista lehiaketa, herri afaria, areto dantza...

Larrabetzu. Otsailaren 11n, 17:30ean, haurrentzako berbena, pilotalekuan.

Erakusketak

Zamudio. *Mendebaldeko Sahara, sahararren herrialdea*, otsailaren 1etik 15era arte.

Elkartasunerako Fondoak antolatutako lehiaketa irabazi duten kartelak. Otsailaren 28tik martxoaren 11ra, liburutegian.

Hitzaldiak

Lezama. *Brasileko Lur Gabeen Mugimendua*. Otsailaren 11n, 20:00etan, kultur aretoan; Oxangoiti kultur elkarteak antolatuta.

Larrabetzu. *Nutrizioa eta elikadura*. Otsailaren 16an, 17:30ean, Gure Etxean

Ikastaroak

Lezama. *Emakumea: bere arazoak gaur egun*, otsailaren 15etik aurrera, 18:00etatik 20:00etara, kultur aretoan (5 martitzetara)

Larrabetzu. Ardoa dastatzeko ikastaroa. Liburutegian eman behar da izena.

Irteerak

Lezama. Peña Labrara. Otsailaren 6an, 8:30ean, Gailur mendi taldeak antolatuta. Garaiogortara. Otsailaren 27an, 8:30ean, Gailur mendi taldeak antolatuta.

Kirola

Lezama. Eskualdeko Pilota Txapelketako finalak. Otsailaren 18an, 20:00etan.

Bestelakoak

Zamudio. Zuhaitz Eguna. Otsailaren 25ean, 11:00etan, eskolan, eta 17:00etan, ludotekan. Erakusketa, puzgarria, lantegiak... Ume eta gazteentzako Aste Santuko kanpaldiak, martxoaren 29tik 31ra bitartean. Argibide gehiago Udaletxean.

Lezama. Agate Deuna. Otsailaren 4an, 9:00etan, kalejira eskolako umeekin, eta 19:30ean Ekidazu abesbatzarekin.

Marsel magoa. Otsailaren 4an, 19:00etan, kultur aretoan

Larrabetzu. Pazko asteko koloniak: Lanestosa eta Sobronen, martxoaren 29tik 31ra. Otsailaren 7tik 11ra arte eman behar da izena.

El precio antzezlanak ikusteko sarre-rak otsailaren 14tik 18ra arte eskuratu ahalko dira liburutegian.

Cocidito madrileño antzezlanak ikusteko sarrerak otsailaren 23tik aurrera eskuratu ahalko dira liburutegian.

Saharako umeak etxean hartzeko kanpaina. Otsailaren 7tik 28ra bitartean, liburutegian.